



## ABALTZISKETAKO TXANTXOEN ERAKUSTALDIA

Amezketan gaur ere kalera irtengo dira talai dantzariak, baserrietan barrena Makila Txiki dantza eskaintzera 6

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Astelehena  
2010-02-15

VIII. URTEA 1929. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA



WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



# HERRITARREN INAUTERIAK

**TOLOSA** Inauterizaleen irudimenak mugarik ez duela argi gelditu zen Zaldunita egunean: benetan ikusgarria

**ASTELENITA** Konpartsen lekua aisialdi taldeetako haur eta gaztetxoek hartuko dute gaur 11:00etatik aurrera 4-5



Elurra, hotza, izotza... bezalako hitzak nagusitzen ari dira Inauteri hauetan. Hala eta guztiz ere, ibartar eta tolosar hauek bainujantzian irten ziren kalera atzokoan. I. TERRADILLOS





libildetan zehar geldialdiak egiten zituzten, baina Musika Bandakoek jotzen jarraitzen zuten. E. EZEIZA



Ehunka lagun jaiki ziren atzo goizean, Dianarekin dantza egiteko. E. EZEIZA



Elurra egiten zuenez, Berdura Plazara iristean asko aterpera sartu ziren, bertan lasai dantza egiteko. E. EZEIZA



Alde Zaharreko kaleak saltoka igarotzeko, zatoa ere atera zuten batzuek. E. E.

## Hotzaren beldurrik gabe, jaikita

**Inauteriak** » Atzo goizean, elurra egiten bazuen ere, jende ugari esnatu zen goizean goiz Dianarekin batera kalera ateratzeko.

### ESTI EZEIZA

Beste behin ere tolosarrek erakutsi dute ez dietela beldurrik hotzari, izotzarinahiz elurrari. 08:00etarako ehunka lagun atera ziren kalera Inauteriei ongi-etorria ematera. Pijamak, galtzerdi lodiak, burukoak, bufandak, batoiak... etxean zuten arropa beroa soinean jantzi-ata atera ziren Tolosako Musika Bandaren doinuak dantzatzera.

Bi ordu baina gehiago egiten dituzte Dianarekin Alde Zaharreko kaleak zeharkatzen, *Jeiki jeiki ohe hortatik gaur tolosarrak Inauteriak beti, alaitzen gaitu guztiz / jeiki jeiki ohe hortatik gaur tolosarrak goazan festara danok goizetik abestuz*, behin eta berriz.

Plaza Zaharrean elkartu eta tartean geldialdi batzuk eginaz, Bandaren aurretik eta atzetik joaten dira saltoka. Atzokoan pertsonaia

sungeziak jaurtitzen hasi ziren Barentin Degunaren egunean.

Jose Inazio Munilla Donostiako Gotzain berria ere astoaren gainean agertu zen Tolosara atzo goizean, Inauteriei egun onak emateko. Hala, kargua hartu ostean, atzo etorri zen lehendabiziko aldiz eskualdera.

Nafarroatik etorri ziren berriz, jota lehiaketan parte hartzen zuten abeslariak. Hauek, lehendabizi

udaletxe aurrean jarri zuten postua, eta ondoren, Berdura plazan. Abestu eta dantzatzeaz gain, jendeari edatekoa ere eman zioten.

Hotzari aurre egiteko barruaberoztea izaten da irtenbideetako bat. Gainera, Inauterien hasiera ospatzeko, askok pattarra nahiz txokolate beroa eraman zuten Dianara. Edalontziak jendearen artean banatu eta topa egin zuten elkarrekin.

10:30ak aldera amaitu zen Diana eta hortik gehienak gosaltzera joan ziren. Batzuk hala ere, etxe aldera abiatu ziren, arropak aldatu eta mozorrotzeko. Garai berean, Tolosako gainontzeko kaleetan karrorok ateratzen hasi ziren. Konpartsetako kideak ere beren muntaiak prestatzen hasi ziren. Honela, aurreko asteetan prestatutakoak kalera ateratzeko garaia iritsi zen.

### Publizitate enpresa batek lan poltsa osatzeko KOMERTZIALAK behar ditu

#### Eskaintzen da:

- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzeko aukera.
- Baldintza interesgarriak.


#### Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Aulfoa izatea.
- Komertzial arloan esperientzia izatea.

#### Kontuan hartuko da:

- Publizitate komertzial lanetan eskarmentua izatea.
- Gipuzkoa eta Bizkaiaiko txokoak ongi ezagutzea.

Curriculum Vitae zehatza bidali  
gizabaliabideak@jarduna.net POSTA ELEKTRONIKORA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA





# IKUSKIZUNEN HERRIA

Atxik jolas-joko-kirolari!, atxik herriari!



Eguzkiaren bat guztioak  
Eguzkiaren bat guztioak  
Eguzkiaren bat guztioak



Erosi DVDa otsailaren 13an eta 14an  
+ = 8€

berria

**Zaldunita Eguna** Hotz handia eginagatik ere jende ugari atera zen atzokoan mozorroa soinean karrozten eta konpartsen desfilea ikustera.

**HERITZ MAIZ - IRIGO TERAPIAK**  
Badiñudi eguraldia bilakatu dela Inauterietako hizketagai nagusietako: «A zer hotza egiten duenb», «Elurra garu ere», «Zababehar ta nagus», «Sekulako katarroa har rapatuko dugus... Ostegunaz garrozki makina bat aldez entzuz ditugu horrelakoa. Baina, bost axola hotza, elurra eta bestelakoa. Atzoko egunez argi ikusi ahal izan zen bezala, Inauterietan heri guztia abaztu egiten du jendeak, eta txantxo jantzita, kalera irten, eta dibertitzea izaten du buruan.  
Gainera, Zaldunita eguna ikusizkizunekin ez da besterik espero. Pentsa, King Kong berak ere Tolosan egin nahi izan zuen egunaldia atzokoan, eta Ameriketako doreekin egin ohi duen moduan, Fronton jateko kanpoaldean egon zen zinean bere maila esleuan zuela. Bera bezala, asko ziren urrutitik etorriak, extralurtarrak, kasu.

**Herritarren parte-hartzea**  
Ez litzateke posible izango hau guztia herriko parte hartuko ez bala, eta badirudi horretan behintzat ez dagoela zertan kezkatu, urtetik urtera geroz eta handiagoa baita parte-hartza dutenen kopurua. 2008tik geroz diru arten izena eman duten karrozak eta konpartsa. Horiek guztiak dira egunotan herriari kolorea, musika, dantza... azken batean, ikusizkizuna ematen diotena. Eta horregatik dira, baina justu, berezi Tolosako Inauterietan, herriari eta herriari ez dirondak, ia denek, nahi izaten dutelako festaren parte izan.

**Gaur lekuko aisialdi taldeek**  
Karrozten lekuko aisialdi taldeek hartuko dute gaur, eta eharriagazterreko lekuan dantzan ikusiko aukera izango da 11:00etik aurrera. Hauetara batera konpartsa ere ibiliko dira, nonahi, herriaren zehar.  
Karrozak bihar irtegan dira berriro, baina kontrako ibilbidea egingo dute, hau da, atzo Geltoki-tik iren zirenak, bihar Gortetik aterako dira, eta alderantziz.  
Bitartean, jarrai dezala festa, asko gertatzen da eta oraindik!



Benidormeko hondartza irudikatu zuten batzuk. L. MAIZ



King Kong gorila Fronton jatekoaren kanpoaldean jarri zela. L. LATAURU



Ardatzile hauek ere ez zuten Zaldunita Eguna galduta nahi izan. L. TERRACOLLOS



Modu berezian aritu ziren hauek ogia egiten. L. TERRACOLLOS



Familako kide guztiak mozorroturik ikus zitezkeen. L. TERRACOLLOS



Atzokoan eguraldi gizonak asmatu zuen ingarpenarekin. L. LATAURU

Goiz guztian baserri baserri puska biltzen eta dantzan aritu ziren Abaltzisketako txantxoak, hotzari aurre egiteko modu ezin hobea; Amezetan ere talai dantzariak aritu ziren.

# Ttakun-ttakun elurretan

NOELIA LATABURU

**U**rrutira makil hotsak entzuten ziren Abaltzisketako plazatik, erlojuan 08:00ak pasatxo baino ez zirela. Puntual ekin zioten txantxoek euren ohiturari, baserri baserri dantzan eta eskean aritzeari, alegia. Orendain aldera kokaturik dauden etxeetara abiatu zen lehenik koadrila, umoretsu, eta pixkanaka herriko baserri guztiak zeharkatu zituzten.

Lehen dantza meza nagusia entzun zutenen aurrean burutu zuten txantxoek. Urteroko aurpegiak osatu zuten atzokoan ere txantxoentzako taldea, zortzi mutilezko, soinu-jolea, poltseroa eta mozo-rrua. Poltseroak, aurpegia belzuturik, baserrietako atariak garbitu zituen saio bakoitzaren aurretik erratzarekin, ondoren dantza bertan egiteko. Ez zen lan erraza izan, izotzaren eta elurraren ondorioz lurra labainkorra baitzegoen; irristadaren bat edo beste ere izan zen artean...

Dotore jantzita ibili ziren zortzi txantxoak, soinean alkandora eta

galtza zuriak, txapel gorria borla zuriekin buruan, gorbata beltza lepoan eta bi ezkon-mantoi koloretu zituztela.

## Gaur Amezetako talai dantzarien txanda

Abaltzisketatik kilometro gutxira ere doinu berbera entzun ahal izan zen goizean. Izan ere, Amezetan talai dantzariak ere Makila-Txiki dantza eskainiz herriko baserriak bisitatu zituzten.

Langile finak direla eta, gaur ere irtengo dira goizetik amezketarriak. Plazan dute hitzordua eta bi taldetan banaturik Bedaioko eta San Martin inguruko baserrietan dantzan ariko dira gazteak, neska zein mutil, aurtan partaide bat gutxiagorekin.

Lehen taldea Ugartetik gorantz Larreta baserrira doan bitartean, bigarren taldea, Liola aldetik gerturatuko da Larreta baserrira. Hain zuzen, Larretan amaituko dute gaurko lana, eta bi egunetan zehar egindako lanaren ordainetan afari ederra egingo dute sagar-dotegian.



Abaltzisketako baserrietan gustura hartu zituzten txantxoak. N. LATABURU



Poltseroak atariak garbitu zituen txantxoek dantza zezaten; irristakor zegoen lurra atzokoan. N. LATABURU

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldea@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

# Arkaitz Olano eta Ruben Saralegi zilarrezko finalean egongo dira

**Leitza** » Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketan Olasagastiren erakustaldia eta 'show'-a ikusi ziren Amazabalen.

## ASIER IMAZ

Leitzako Amazabal pilotalekuan aizkora proba interesgarriak jokatu ziren herenegun. Alde batetik, Urrezko Mailako lau aizkolaria, eta bestetik, Zilarrezko Mailako beste horrenbeste. Azken hauen artean bi herritar: Arkaitz Olano eta Ruben Saralegi.

Kanpoan hotza, elurra eta izotza zegoen. Bamean berogailua. Hala eta guztiz ere, etzen ikusle gehiegi gerturatu pilotalekura. Hori bai, hurbildutakoen artean herri kirol munduko aurpegi ezagun ugari, besteak beste, Iñaki eta Inaxio Peurrena, Mieltxo Saralegi eta Jexuxnari Mujika.

## Hirugarren finala jarraian

Saralegi eta Olanok finalerdietako lehia jokatu zuten Kañamarensaba-Iluben aurka. Irabazleek Zi-

larrezko Mailako Binakako Txapelketaren finala zuten zain, biaste berru Azpeitian. Bertan egoteko eskubidea leitzarrek lortu zuten lan bikaina egin ostean. Irabazleek 15:04ko denbora egin zuten. Kañamarestarrek berriz 16:19koa.

Probaren hasieratik hartu zuten aurrea bi leitzarrek eta neurri batean, lasai aritu ziren saio osoan zehar. Garaipenaren ostean, Zilarrezko Mailako hirugarren finala jokatuko dute biet elkarrekin.

## Olasagastiren 'show'-a

Gauzak estuago joan ziren Urrezko Mailari zegokion proban. Txapartegi eta Arria V.a aurretik hasi ziren, segundo mordobateko aldearekin. Baina orduan, Olasagasti handi bat agertu zen, Etxebeste-ren laguntzatxoa inguruan zuela. Kronoa irauli eta garaipena lortzeko parada izan zuten, 25:19ko denborarekin. Galtzaileek 26:20 minutu behar izan zituzten lanak amaitzeko.

Lehia azken proban erabakizten, txanda librean. Irabazleek aurrea hartu zuten hasieratik eta lasaitasun horri esker Olasagastiren



Arkaitz Olano enborearen gainean lanean hasteko prest. Ruben Saralegi zutikakoa moztzen. A. IMAZ

show-a hasi zen azken enboretan: jauziak, orruak, keinuak, ikusleei bidalitako mezuak... Sarrera ordaindu zutenak berriz, txoratzten.

Finalerdietan Atutxa II.a eta Recondoren aurka jokatu dute Olasagasti-Etxebestek.

## MIKEL ZABALETAREN ERAKUSTALDIA

Amazabal pilotalekuan elkartu zirenek Mikel Zabaleta leitzarren erakustaldia ikusteko aukera izan zuten. 12 urteko gaztetxoak enbor bat moztu zuen herritarren aurrean, beti ere, Gabriel Saralegi ondona zuela.



A. IMAZ



A. IMAZ

«Aurretik zoazenean entrenatzaileari kasu egitea erraza izaten da»

«Aizkora erabiltzen indarrrik egin gabe ikasten dela diote»

## ARKAITZ OLANO

**Berrito ere finala jokatu duzue elkarrekin. Kasu honetan Azpeitian, bi aste barru.**

Finalean egotea beti da pozgarria. Jarraian hirugarren urtea dugu gainera, beraz, pozik.

**Zilarrezko Aizkolarien Binakako Txapelketaren hasieran hori lortzerik espero al zenuten?**

Txapelketan hasten zarenean pausoz pauso joan behar da, baina esperantza beti izaten duzu.

**Azken proban, txanda librean, Astibia entrenatzailea «Luze! Luze!» esanaz ibili da ikusle artean. Entzuten al zenien?**

Bai, bai. Normalen entrenatzailearen ahotsa ongi entzuten duzu. Gainera bera beti horrela aritzen da eta ahots hori jada ongi ezagutzen dut.

**Entzuteaz gain, kasurik egiten al zenien?**

Aurretik joandakoan kasu egitea erraza da. Atzetik baldin bazabiltza, presaka, zailagoa izaten da.

**Bikotea, Saralegi, zer moduz ikusi duzu?**

Ongi. Hau beti ongi ibiltzen da; beti sasoiari.

## RUBEN SARALEGI

**Argi geratu da elkarrekin ongi moldatzen zaretela.**

Azkeneko hiru urtetan elkarrekin osatu dugu bikotea. Elkarrekin entrenamendu dezente eginak gara eta ongi moldatzen gara, bai.

**Amazabal kanpoan hotz handia egiten zuen. Nola egokitu zarete?**

Kanpoan kristoren hotza zegoen baina barruan berogailu bat jarri dute eta egia esan nabaritzen zuten. Gero mugimendu batzuk eginaz berotu gara.

**Gustura gelditu al zara gaur egindako lanarekin?**

Nahiko ongi ibili naiz. Zutikakoan huts egin dut pixka bat; akats batenetarik aizkora inguruan izan dut. Lehendabiziko erakustaldia 6 urterekin egin nuen plazan. Gainera, maneiua indarrrik egin gabe ikasten dela esaten dute eta horregatik izango da.

## Laburrak

### Leire Olaberriak garaipen berri bat lortu du

**IKAZTEGIETA** • Leire Olaberriak pitako Palma Hiria Trofeoa irabazi zuen atzo goizean Herrialde Katalanetan. Ikaztegieta bizikleta gainean bi proba korritu zituen. Keirin-ean garaipena lortu zuen eta puntukakoan bigarren gelditu zen. Saikapen nagusia bi probak kontutan hartuta erabakitzen zenez, garaipena Olaberriak lortu zuen.

### Saralegi-Appraizek 14-22 galdu dute Errioxan

**AMEZKETA** • Ekaitz Saralegi atzo jokatu zuen lehen aldiz gorengo mailako Binakako Txapelketan. Appraizekin osatu zuen bikotea amezketarrek, Olaizola I.aren lekua beteaz. Aurrean berriz, Pascual eta Titin III.a izan zituen Asegarceko bikoteak. Ekaitz Saralegi oso ongi hasi baldin bazen ere, Aspeko bikoteak partidari buelta eman eta garaipena lortu zuen, 22-14ko emaitzarekin. Pilota jaialdian Capellan-ek agurreko partida jokatu zuen. Ondoren errioxarrak omenaldia jaso zuen.



## Sorgin-orratzak nagusi Beterrin

**VILLABONA** • Betteriko III. Bertsolari Txapelketaren finala herenegun jokatu zen Villabonan. Mandeuliak eta Sorgin-orratzaren arteko lehia jokatu ondoren, azken hauek lortu zuten garaipena. Sorgin-orratzak taldeko ki-deek, Unai Muñoak, Iñaki Apalategi eta Ander Lizarralde, txapela eta 300na euroko saria jaso zuten. HITZA



